

ZIURTAGIRIA Tokiko Gobernu Batzarraren erabagia

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2025-05-06(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

3-BERMEOKO MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUETAN EUSKARAZ IPINITAKO ERROTULUAK FINANTZATZEKO 2025. URTERAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA ETA ZABALTZEA.

Xedea

Bermeoko merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko 2025. urterako dirulaguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, Diru laguntzen Plan Estrategikoa eta Diru laguntzen Berriazko Oinarriak onartzea erabaki zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Berriazko Oinarri horien artean, Bermeoko merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko dirulaguntzenak onartu ziren.

Bigarrena: Bermeoko Udaleko Osoko Bilkurak 2023ko martxoaren 31n Bermeoko merkataritza establezimenduetan errotuluak euskaraz ipintzeko dirulaguntzen berriazko oinarriak aldatzea erabaki zuen.

Hirugarrena: aldatetaren erabakia 2023ko maiatzaren 12ko 91 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Laugarrena: Bermeoko merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko dirulaguntzak eskatzeko inprimakiak prestatuta daude, euskeraz eta elebiz.

Bosgarrena: Bermeoko Udaleko kontu-hartzaileak 2025eko martxoaren 7an fiskalizazio txostena egin zuen honako hauek adierazita:

FISKALIZAZIO TXOSTENAREN KONKLUSIOA: Espedientea aztertuta, honako emaitzarekin ikuskatzen da: DESADOS ondorengo ohar ez etenarazleetan oinarrituta:

- *Proposamenak 2020ko berriazko oinarriak agertzen dauz, horren aldageta aipatu barik; oinarriak aldatuak izan ziran 2023-05-12ko BOBean argitaratuakoaren arabera. Beraz, akatsa hori zuzendu beharra dago.*
- *Proposamenak ez dau proposatzen gastuaren onespina ezta horrerik lotutako daturik ere (partidak, kopuruak...), beraz, deialdian dirulaguntzen guztizko zenbatekoa eta zenbateko hori egotzitako aurrekontuko kredituen zenbatekoa agertu beharra dago.*
- *Espedientean ez dago organo eskudunaren aldeko txostenik.*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatuta ahal dozu.
Kodea:
07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 11:38:30

EXPEDIENTE ::
2025IDA_ERA_0034
Data: 17/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unitidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7



Seigarrena: udaleko kontu-hartzaileak egindako oharrak kontuan izan dira eta beharrezkoak ziren zuzenketak egin dira.

Zazpigarrena: gastu honetarako 2000€ daude Euskera Sailaren 01400 33540 4710000 partidan.

Zortzigarrena: gastu honek beharrezko atxikipena eginda du (2025/000072).

Argudioak

Lehenengoa: Diru Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

Bigarrena: Lege bereko II. Xedapen gehigarriaren arabera, eskumena alkateak dauka, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz zinegotzi delegatuak dauka eskuordetuta.

Erabakia

Goian adierazitako kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak ahobatez honakoa erabaki dau:

LEHENENGOA: Bermeoko merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko 2025. urterako dirulaguntzen deialdia eta eskaera-orriak onartzea eta zabaltzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2023ko maiatzaren 12an argitaratutako oinarrien arabera.

BIGARRENA: 2000€-ko gastua onartzea Euskera Sailaren 01400 33540 4710000 partidaren pentzura.

HIRUGARRENA: Deialdi honen publizitatea BDNS datu basean argitaratzea.

LAUGARRENA: Bermeoko Udalaren webgunean deialdi hau argitaratzea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 11:38:30

EXPEDIENTE ::
2025IDA_ERA_0034

Fecha: 17/02/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7



I. ERANSKINA

6.1.1. MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUETAN ERROTULUAK EUSKARAZ
IPINTZEKODIRULAGUNTZEN OINARRI ZEHATZAK**ESPARRUA: EUSKARA****IN-E 180/05-21**

UDAL SAILA:	Euskera Saila
INSTRUKTOREA	Euskera teknikaria
BALORAZIO BATZORDEA	Konparaziozko balioespenik ez denez egingo, ez dagokio.
DIRULAGUNTZA EBATZIKO DUEN ORGANOA:	Tokiko Gobernu Batzarra
EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA:	Ebazteko eta jakinarazteko sei hileko epea egongo da, eskaera aurkezten denetik zenbatzen hasita.
DIRULAGUNTZAREN LERROA:	Merkataritza establezimenduetan euskararen presentzia sustatzea.
KODEA:	2025/IDA_ERA_0034
AURREKONTUAN ZEHATZUTAKO DIRU KOPURUA:	Aurrekontuan urtero aurreikusitakoa.
HELBURUAK	Merkataritza eta enpresa arloan euskara erabiltzea sustatzea. Establezimenduetako identifikazio-ikurrak euskaraz jarditezen laguntzea, udalerriko hizkuntza paisaia euskaraz egon dadin
EPEAK:	Eskariak aurkezteko epea: Oinarriak BAOan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita abenduaren 15era arte. Jasotako eskariak heldu ahala ebatziko dira.
BALORAZIO IRIZPIDE ZEHATZAK:	<ul style="list-style-type: none"> • Errotulua euskaraz idatzita egotea. • Errotuluaren testua zuzen idatzita egotea. Hala ez balitz, zuzentzeko aukera izango du eskatzaileak, eta frogagiria aurkeztu ondoren, dirulaguntza jasotzeko modua izango du. • Hala badagokio, hirigintzako lizentzia eskatuta izatea. • Elementu bat baino gehiago ipini gura badira, bakoitzari dagozkion agiriak aurkeztea. • Bermeoko Udalarekin zorrik ez izatea. • Establezimenduak errotulua lehenengo aldiz euskaraz jartzea.
HIZKUNTZA IRIZPIDEAK	Diruz lagunduko diren entitateen eta udalaren arteko ahozko eta idatzizko harremanak, ahal den kasu guztietan, euskaraz bideratuko dira.
ESKATZAILEAK	Bermeon kokatuta dauden merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu- enpresa txikietako titularrek eskatu ahal izango dute dirulaguntza.
DIRUZ LAGUNDUKO DIREN KONTZEPTUAK	<u>Lagunduko diren elementuak:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Establezimenduetako kanpoko errotulua • Autoetako errotulazioa • Toldoetako errotulazioa • Binilozko errotuluak <u>Diruz lagunduko ez direnak:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Finantza erakunde, hipermerkatu eta establezimendu-kate handietako errotuluak. • Establezimenduaren izena euskara ez den beste hizkuntza batean badago.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 11:38:30

EXPEDIENTE ::
2025IDA_ERA_0034
Data: 17/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7



	<ul style="list-style-type: none"> Izen propioak (izen ponte, abizen, toponimo...) bakarrik adierazten dituzten errotuluak. Errotuluaren gastua bakarrik lagunduko da; ez da lagunduko errotulua ipintzearen kostua. Establezimendu berean, lehenengo aldiz jartzen ez diren euskarazko errotuluak. <p>Establezimenduetan euskaraz jarriko diren errotuluen %75eko kostua, gehienez 300€.</p>
PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA	<p>Dirulaguntza emateko prozedura: konkurrentzia lehiakorra izango da, baina konparaziozko balioespenik egin barik.</p> <p>Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste edozein dirulaguntzarekin. Dirulaguntza horiek beste administrazio batek, zein entitatek emandako dirulaguntzak izan daitezke, beti ere, guztiak batuta diruz lagundu daitekeen kostuaren %100 baino gehiagokoa ez bada. Gain-finantzaketarik balego, diruz lagundutako kostuaren mugaraino murriztuko litzateke dirulaguntza.</p> <p>Baldintzak betetzen dituzten eskariak Tokiko Gobernu Batzarrak onetsiko ditu, errotulua ipinita dagoela frogatzeko argazkia aurkeztu eta gero.</p> <p>Deialdi honetan aurreikusi ez direnak instruktoarek eta zinegotzi delegatuak aztertu eta ebatziko dituzte, dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legeari jarraiki.</p> <p><u>Aurkeztu beharreko agiriak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> Merkataritza establezimenduetan errotuluak euskaraz ipintzeko dirulaguntza eskatzeko orria beteta Errotuluaren zirriborroa, aurreikusitako testuarekin (errotulua jarri aurretik) Jatorrizko faktura (bananduta, alde batetik, errotuluaren kostua, eta bestetik, errotulazio hori jartzeari dagokion zenbatekoa). Faktura hori ordainduta dagoela adierazi beharko da. Ipinitako errotuluaren argazkia.
AURREIKUSITAKO KOSTUA	Urtero aurrekontuan aurreikusitakoa.
JARRAIPIEN ETA EBALUAKETARAKO ADIERAZLEAK	<ul style="list-style-type: none"> Udalerrian zabaldu diren jardueretatik, errotuluak euskaraz jartzearen emandako dirulaguntza kopurua. Egindako eskaeretatik emandako dirulaguntza kopurua. Urtean zehar diruz lagundutako errotulu kopurua Dirulaguntzaren ordainketa data interesdunei
AGIRIAK	Errotuluak euskaraz ipintzeko dirulaguntza, eskaera-orria
GENERO ERAGINA	Batere ez
1/1982 LOaren arabera argitagarria ez den emakida BAI/EZ	<p><i>Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilaria buruzkoa.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> Ez

II. ERANSKINA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
 CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 11:38:30

EXPEDIENTE ::
2025IDA_ERA_0034

Datea: 17/02/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7



ERROTULUAK EUSKERAZ IPINTEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA-ORRIA

IN-E 79/14-25

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak:

E(H)NA/NAN: Tel.:

Helbidea:

PK: Herria:

Faxa: E-posta:

Jakinarazpena Paperean Egoitza elektronikoa**ORDEZKARIAREN DATUAK**

Izen-abizenak:

E(H)NA/NAN: Tel.:

Helbidea:

PK: Herria:

Faxa: E-posta:

*Nahitaezkoa izango da, jagokon ahalordea, ziurtagiria edo IN-108 inprimakia behar bezala beteta eranstea inprimaki honi.

JARDUEREAREN DATUAK

Jarduerearen izena:

Helbidea:

ERROTULUAREN KOKALEKUA ESTABLEZIMENTUAN (zein tokitan): IBILGAILUAN (matrikulea): BESTERIK (zehaztu non):.....**ERROTULUA IPINI AURRETIK AURKEZTU BEHARREKOA**

* ERROTULUAREN TESTUA:

* Errotuluaren zirriborroa

Euskera Sailak 10 eguneko epean jakinaraziko deutso eskatzaileari proposatutako testua ontzat emoten dauen ala zuzenketea behar dauen.

ERROTULUA IPINI OSTEAN AURKEZTU BEHARREKOA

* Ipinitako errotuluaren argazkia, Euskera Sailean ontzat emondako moduan ipini dala egiaztatzeko

* Faktorea

* Ordaindu izanaren frogagiria

* Dirulaguntzea hartzeko kontu zenbakia (IBAN kodea eta 20 digituak):

* Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatearen agiria.

* Ogasunarekin zorrik ez izatearen agiria.

ADIERAZTEN DOT:

* Ez daukadala Bermeoko Udalagaz ezelako zorrik

* Bermeoko Udala baimentzen dodala Gizarte Segurantzagaz zorrik daukadan kontsulta egiteko.

Bermeon, 20.....(e)koaren(e)(a)n

Eskatzailearen izenpea

BERMEOKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUA

* Jakinarazpena gatzeleraz jaso nahi dot. Ezer adierazi ezean, udalak erantzuna euskeraz emongo deutso.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7**Sinadurea eta data**JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 11:38:30EXPEDIENTE ::
2025IDA_ERA_0034
Data: 17/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7



Datuak Babesteko 3/2018ko Lege Organikoa (DBLO) eta 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Europarrari dagokion informazioa (DBEO). Arduraduna: Bermeoko Udala, antolakuntza@bermeo.eus Xedea: sarreraren eta urtearen erregistroaren kontrola, eta goian jasotako eskaerearen tramitazioa. Legitimizazioa: botere publikoen jardunak agindutako egitekoa betetea. Hartzailak: ez jake daturik emongo hirugarrenei, legezko betebeharrak izan ezean. Eskubideak: datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko, tratamendua mugatzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak Informazio gehigarria: udalaren webgunean: <http://www.bermeo.eus/datuababesa.html>

ARGIBIDEAK

Onuradunak:

Dendetako, tabernetako, negozio txikietako eta beste edozein jardueratako errotulazioa euskeraz ipini gura daben jardueretako titularrak.

Laguntzen diran elementuak:

- Kanpoko errotulua
- Autoetako errotulazioa
- Toldoetako errotulazioa
- Binilozko errotulatuak
- Urigintzako lizentzia behar dabenek tasaren %75eko hobaria izango dabe

Laguntzea hartzeko baldintzak:

- Establezimentuaren izena euskeraz izatea edo euskal idazkeraz idatzita egotea.
- Establezimentuaren izena berezia bada (ponte izena, abizena, toponimoa...), bera bakarrik ez adieraztea errotuluan. Kasu horretan, establezimentuari erreferentzia egingo deitson izen arrunt bat be agertu beharko da.
- Testua zuzen idatzita egotea. Holan ez bada, zuzentzeko aukerea izango da.

Dirulaguntzearen zenbatekoa:

- Errotuluaren %75eko kostua (BEZa kanpo), gehienez 300€.

Eskaera-orria zelan eta noiz aurkeztu:

Aurkeztu beharrekoak

- Eskaera-orria beteta
- Errotuluaren zirriborroa
- Faktura (bananduta alde batetik, errotuluaren kostua, eta bestetik errotulazio hori jarteari jagokon kostua)
- Faktura ordaindu izanaren frogagiria
- Kontu korrontearen zenbakia
- Errotulua ipinita dagoan frogatzeko agiria

Aurkezteko epea:

Urte bakoitzeko abenduaren 15era arte

Aurkezteko tokia:

Egoitza elektronikoa: www.bermeo.eus

Argibide gehiago:

Euskera Saila. Gizarte eta Kultura Etxea, 3. solairua

Tel.: 94 617 91 22

euskera@bermeo.eus



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 11:38:30

EXPEDIENTE ::
2025IDA_ERA_0034

Data: 17/02/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7



III. ERANSKINA

ERROTULUAK EUSKERAZ IPINTEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA-ORRIA SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA LA COLOCACIÓN DE RÓTULOS EN EUSKERA

IN-G 79/14-25

ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE

Izen-abizenak / Nombre y apellidos:
 E(H)NA/NAN / DNI: Tel.:
 Helbidea / Dirección:
 PK / C.P.: Herria / Municipio:
 Faxa: E-posta:
 Jakinarazpena / Notificación * Paperean / En papel * Egoitza elektronikoa / En la sede electrónica

ORDEZKARIAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE

Izen-abizenak / Nombre y apellidos:
 E(H)NA/NAN / DNI: Tel.:
 Helbidea / Dirección:
 PK / C.P.: Herria / Municipio:
 Faxa: E-posta:

*Nahitaezkoa izango da, jagokon ahalordea, ziurtagiria edo IN-108 inprimakia behar bezala beteta eranstea inprimaki honi. / Será obligatorio adjuntar el poder correspondiente, certificado o impreso IN-108 debidamente cumplimentado a este formulario.

JARDUEREAREN DATUAK / DATOS DE LA ACTIVIDAD

Jarduerearen izena / Nombre de la actividad:
 Helbidea / Dirección:

ERROTULUAREN KOKALEKUA / UBICACIÓN DEL RÓTULO

- ESTABLEZIMENTUAN (zein tokitan) / En el establecimiento (ubicación):
 IBILGAILUAN (matrikulea) / En el vehículo (matrícula):
 BESTERIK (zehaztu non) / En otra ubicación (indicar dónde):

ERROTULUA IPINI AURRETIK AURKEZTU BEHARREKOA / PRESENTAR ANTES DE LA COLOCACIÓN DEL RÓTULO

- ERROTULUAREN TESTUA / Texto del rótulo:
 Errotuluaren zirriborroa / Borrador del rótulo

Euskera Sailak 10 eguneko epean jakinaraziko deutso eskatzaileari proposatutako testua ontzat emoten dauenala zuzenketea behar dauen. Euskera Saila comunicará a la persona peticionaria en un plazo de 10 días si da por bueno el texto o precisa corrección.

ERROTULUA IPINI OSTEAN AURKEZTU BEHARREKOA / A PRESENTAR TRAS LA COLOCACIÓN DEL RÓTULO

- Ipinitako errotuluaren argazkia, Euskera Sailean ontzat emondako moduan ipini dala egiaztatzeko / Fotografiadel rótulo colocado, para comprobar que responde al texto indicado por Euskera Saila
 Faktura / Factura
 Ordaindu izanaren frogagiria / Comprobante del pago
 Dirulaguntzea hartzeko kontu zenbakia (IBAN kodea eta 20 digituak) / N° de cuenta para el ingreso de la ayuda (IBAN y 20 dígitos):
 Gizarte Segurantzarekin zorrrik ez izatearen agiria/ Certificado de no tener tengo deudas con la Seguridad Social
 Ogasunarekin zorrrik ez izatearen agiria. Certificado de no tener deudas con Hacienda

ADIERAZTEN DOT / DECLARO:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.
 Kodea:
 07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7

Sinadurea eta data
 JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
 CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 11:38:30

EXPEDIENTE ::
 2025IDA_ERA_0034
 Data: 17/02/2025
 Lekua: Bermeon
 Erregistro unitidea:
 Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7



* Ez daukadala Bermeoko Udalagaz ezelako zorrik / Que no tengo ninguna deuda con el Ayuntamiento de Bermeo.

* Bermeoko Udala baimentzen dodala Gizarte Segurantzazagaz zorrik daukadan kontsulta egiteko/ Que autorizo al Ayuntamiento de Bermeo para que consulte si tengo deudas con la Seguridad Social.

Bermeon, 20.....(e)koaren(e)(a)n

En Bermeo,

Eskatzailearen izenpea / Firma de la persona solicitante

BERMEOKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUA / ALCALDESA-PRESIDENTA DEL
AYUNTAMIENTO DE BERMEO



Jakinarazpena gazteleraz jaso nahi dot. Ezer adierazi ezean, udalak erantzuna euskeraz emongo

deutsu.

Quiero que se me notifique en castellano. Si no se indica nada, la respuesta del ayuntamiento se remitirá en euskera.

Datuak Babesteko 3/2018ko Lege Organikoa (DBLO) eta 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Europarrari dagokion informazioa (DBEO), Aurduraduna: Bermeoko Udala, antolakuntza@bermeo.eus Xedea: sarrerren eta urteeren erregistroaren kontrola. eta goian jasotako eskaerearen tramitazioa. Legitimazioa: botere publikoen jardunak agindutako egitekoa betetea. Hartzailak: ez jake daturik emongo hirugarrenei, legezko betebeharra izan ezean. Eskubideak: datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko, tratamendua mugatzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak Informazio gehigarria: udalaren webgunean: <http://www.bermeo.eus/datuenbabesa.html>

Información correspondiente a la Ley Orgánica 3/2018 de Protección de Datos (LOPD) y el Reglamento 679/2016 del Parlamento Europeo de Protección de Datos (RPEPD). Responsable: Bermeoko Udala, antolakuntza@bermeo.eus. Objeto: gestión de registro y tramitación de la solicitud indicada. Legitimación: cumplimiento de la misión encomendada por la actuación de los poderes públicos. Destinatarios/as: no se facilitarán datos a terceras personas, excepto que exista obligación legal. Derechos: derechos de acceso, rectificación, cancelación, limitación del tratamiento y oposición al tratamiento, según información adicional; Información adicional: en la página web municipal: <http://www.bermeo.eus/datuenbabesa.html>



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 11:38:30

EXPEDIENTE ::
2025IDA_ERA_0034

Fecha: 17/02/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7



ARGIBIDEAK / INSTRUCCIONES**Onuradunak** / Personas beneficiarias:

Dendetako, tabernetako, negozio txikietako eta beste edozein jardueratako errotulazinoa euskeraz ipinigura daben jardueretako titularrak / Las personas titulares de actividades comerciales, de hostelería o pequeños negocios que deseen rotular en euskera.

Laguntzen diran elementuak / Elementos subvencionables:

- Kanpoko errotulua / Rótulo exterior
- Autoetako errotulazinoa / Rotulación en vehículo
- Toldoetako errotulazinoa / Rotulación en toldo
- Binilozko errotulua / Rotulación en vinilo
- Urigintzako lizentzia behar dabenek tasaren %75eko hobaria izango dabe / Los rótulos que precisen de licencia urbanística tendrán una bonificación del 75% de la tasa.

Laguntzea hartzeko baldintzak / Requisitos para recibir la ayuda:

- Establezimentuaren izena euskeraz izatea edo euskal idazkeraz idatzita egotea / Que el nombre del establecimiento sea en euskera o esté escrito en euskera.
- Establezimentuaren izena berezia bada (ponte izena, abizena, toponimoa...), bera bakarrik ez adieraztea errotuluan. Kasu horretan, establezimentuari erreferentzia egingo deutson izen arrunt bat be agertu beharko da / En caso de que el nombre del establecimiento sea un nombre propio (de pila, apellido, topónimo...), deberá figurar también un nombre común que haga referencia al establecimiento.
- Testua zuzen idatzita egotea. Holan ez bada, zuzentzeko aukerea izango da / El texto debe estar escrito correctamente. Si no es así, se podrá corregir.

Dirulaguntzearen zenbatekoa / Importe de la subvención:

- Errotuluaren %75eko kostua (BEZa kanpo), gehienez 300€ / El 75% del coste del rótulo (IVA no incluido), máximo 300€.

Eskaera-orria zelan eta noiz aurkeztu / Presentación de documentación:**Aurkeztu beharrekoak** / Documentos a presentar

- Eskaera-orria beteta / Impreso de solicitud
- Errotuluaren zirriborroa / Borrador del rótulo
- Faktura (bananduta alde batetik, errotuluaren kostua, eta bestetik errotulazino hori jarteari jagokon kostua) / Factura (indicando, por un lado el coste del rótulo y, por otro, el coste de la colocación del rótulo)
- Faktura ordaindu izanaren frogagiria / Justificante del pago de la factura
- Kontu korrontearen zenbakia / Número de cuenta corriente
- Errotulua ipinita dagoan frogatzeko agiria / Documento acreditativo de la colocación del rótulo

Aurkezteko epea / Plazo de presentación:

Urte bakoitzeko abenduaren 15era arte / Hasta el 15 de diciembre de cada año.

Aurkezteko tokia / Lugar de presentación:

Egoitza elektronikoa / Sede electrónica: www.bermeo.eus

Argibide gehiago / Más información:

Euskera Saila. Gizarte eta Kultura Etxea, 3. solairua (3ª planta)

Tel.: 94 617 91 22

euskera@bermeo.eus

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatzen ahal dozu.

Kodea:
07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 11:38:30


EXPEDIENTE ::
2025IDA_ERA_0034
Datea: 17/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7



erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Nadia Neme Shomaly alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orri-oinan sinatzailea eta data

	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7</p>	<p style="text-align: center;">Sinadurea eta data</p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025 CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 11:38:30</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2025IDA_ERA_0034</p> <p>Data: 17/02/2025</p> <p>Lekua: Bermeon</p> <p>Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
--	--	--	--

CSV: 07E90012D2E400Z5N1G6U8Z2W7

